

ALDAKETAK ZUMAIA-DONOSTIA ZERBITZUETAN URTARRILAREN 27AN, 28AN ETA 29AN

Euskotrenek urtarrilaren 27an, 28an eta 29an Zumaia-Donostia Lurraldebusko autobus zerbitzuetan aldaketak sartuko ditu.

Igandean, urtarrilaren 27an, Usurbilen “Irisasi BTT” lasterketa ospatuko denez, erdigunea 8:00ak eta 14:00ak bitartean trafikorako itxita egongo da. Aldi horretan, UK09 Zumaia-Donostia (N-634 errepidetik) lineako autobusak saihesbidetik ibiliko dira. Zumaiara doazen zirkulazioetan, autobusek San Inazioko eta Atxegalde auzoko biribilgunean geldialdia egingo dute. Kontrako noranzkoan, Donostiarantz, ez dira aldaketarik egingo.

Donostian datorren astelehenean, urtarrilaren 28an, aurreikusita dagoen manifestazioa dela eta, 12:00etatik aurrera, UK09, UK10 eta UK11 Zumaia-Donostia lineetako autobusek ukitutako tartetean atzerapenak edo aldaketak izan ditzakete.

Donostian ere gauza bera geratuko da asteartean, urtarrilaren 29an, aurretiaz aipatutako lineetan, izan ere manifestazioa aurreikusita dago eta hasiera goizeko 11:00etan izango da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: ostirala, 2019ko urtarrilaren 25a

Euskadi, auzolana, bien común

